

HIRUGARREN BELARRIA



DE LA
TRA-
TRAN-
TRANSGRESIÓN
HAUSTURARENA

IRAILAK 10 - 14
10-14 SEPTIEMBRE

www.hirugarrenbelarria.audio-lab.org



*O people that I know
It is enough for me to hear the noise of their footsteps
To be forever able to indicate the direction they have taken*

Guillaume Apollinaire "Cortège" 1920.

Hirugarren Belarriaren edizio berri honen asmoa, soinua, musika eta entzumenaren bidez jasotzen ditugun eta gure gizartea osatzen duten hainbat baliabide dramatikoren eta erretorikoren pertzepzioa zabaltzea da. 2011ko irailan ospatu jardunaldien lehen zatian, soinuak (eta ondorioz musikak), mundu sakratuaren esplorazio horretarako egokiak zirela esaten genuen, izatez, diskurtsoaren jardunera murriztu ezin den zerbait delako. Aurtengoan, bai sakratuaz eta bai soinuaz aritzerakoan aurkitzen dugun muga izaera honi jarraituz, hausturaren esanahiari buruz hitzegingo duten zenbait pentsalari lagun gonbidatu ditugu.

Nietzscherentzat Musika Dionisiakoa (borondatearen antzeko zerbait) aintzinako Greziako *nomosaren* hausturatik eta haren gaintzetik sortzen da. Soinu dionisiakoaren extasia itxurazko mundu hartan bapatean agertu zen, gizakiaren gorpua muturreraino biziagotu eta bere nortasuna eraldatuz: "ez ahoaren sinbolismoa ezta hitzaren aurpegiarena ere, baizik eta gorputzeko atal guztiak erritmikoki mugitzen dituen dantzaren erabateko keinua."

Hain zuzen, aintzinako Greziako idatzi batean topatzen du Victos Shkolvskik, bere ezkontza eguneko ospakizunean, bere burua dantzak arrastaka eramaten utzi zuen printzearen bitxikeria hau: "...arropa kendu zuen arte, eta behin biluzik, eskuen gainean dantzan egiteari ekin zion. Emaztegiaren aitak, Erregeak, haserre, oihu egin zion: "Printzea, zure dantzaren erruz zure ezkontza suntsitu duzu!". "Berdin zait" erantzun zion printzeak eta eskuen gainean dantzan jarraitu zuen.

Musikaren eta dantzaren erritmoak sortu ditzazketen bestetasun adibide hauek, Victor Turner antropologoak deskribatzen zuen igarobide errituen aurreko fasean kokatu daitezke. Eragilea izaki osatu gabea den leku batean. "Ez gauza bat, ez bestea" izanik ere, aldeberean eta modu iragankor batean bi baldintzak izateko aukera duen norbait.

Sakratuaren eta hausturaren arteko erlazioa sarritan azpimarratu zuen George Bataille idazleak. Frantziako soziologia eskolan horrenbesteko eragina izan zuen Marcel Maussen aforismo batean aurkitu zuen arazoaren muina: "tabuak bortxatzeko asmatuak izan dira".

Gaur egun, aisialdi programatuaren jendetzentzako musketan eta dantzetan topa ditzazkegu tragikotasuna, zalaparta eta amorrua. Edozein diskotekako iluntasunean topa dezakegu tragikotasunaren esperientzia, otzana agian, kontserbalatuko eroldi baten modura, baina esperientzia azken finean. Bestetasunaren bilaketa, mundutik eta norbere burutik ihes egiteko gogoia berdinak dira oraindik. Mundu guztiak izan nahi du beste norbait.

Bere aldetik, jolasa eta pentsamenduaren arteko harremanak uztartzen dituen liburu batean, Javier Echeverria, gorputza ezarritako antolaketa batenpean jartzeko garaian Niaren eta Jainkoaren artean osatzen den elkartasunaz aritu ondoren, modu harrigarri batean *riau-riau-ari* buruz hizketan hasten da. Aldiberean dantza eta borroka politikoa den errito ariketa honetan, Echeverriak dantza egiten jarraitzea ez den beste helburu edo xede guztietatik aske ageri den ariketa ikusten du.

Izan ere, festa, bitarte musikaren antzera, denboraren salbuespen estatu bat da. Manuel Delgadoren hitzetan, festak, nolabait esatearren, ez dauka iraupenik. Goraipatzen duen jardun beraren etenaldia suposatzen du. Inauterian erakusle garbiena topatzen duen denboraren haustura honek, inskribatzen den gizartearen behin-behinekotasuna antolatzeke orduan funtzio garrantzitsua du.

Bestalde, ezin dugu ahantzi, modernitateak, munduaren lilura amaitzetik urrun, haustura bera makulu hartuta mundua bizitzeko modu ezberdinenak sakralizatu dituela. Zentzu honetan, Michael Taussig idazleak erlijioa drogen diskurtsora moldatu edo mugitu dela aipatzen du: "Gizarte modernoak, bereziki Amerikako Estatu Batuetakoak, drogak legez kanpo utzi eta hauen erabilera eta salmenta ezohiko moduan zigortu ondotik, sakratua den horretan gordetzen den haustura eta tabuaren logika perfekzio maila beldurgarrienera eraman du".

Hortaz, arrazionaltasun modernoak mundu sakratuarekin amaitzeko egin duen saiakera, bere logikaren azpian dagoen gatazka deusezteko saiakera baino ez da. Sakratua dena, espazio bakar eta nonahiko bihurtzeko saiakera, giza portaeraren eremuko zoko ezkutuenean ere eragiteko gaitasuna duena.

Peter Sloterdijk, "El extrañamiento del mundo" liburuan, sakratuaren eta sustantzia ezberdinen erabilerean arteko erlazioak "bizitzaren gehiegizko eskaeraren" aurrean ihes egiteko tresna bezala aipatzen ditu. Entzumena eredu bezala hartzen duen ihesa:

"Entzungailuak ditugunetik, musikaren kontsumo modernoan munduarekiko deskonexioaren printzipioa gailuen eskalaren arabera ere aurreratzen da. Ideia hontatik abiatuz, modernitatearen giro sutilagoen forma guztien eboluzio drogoteoriko batetik gero eta hurbilago gaude. Gaur egun, zaila da munduarekiko urrutiratzeko balio dezaketek teknika musikalen aztarnarik ez duen kultur fenomeno garaikiderik pentsatzea. Soinu instalazioaren menu tonalean egindako murgiltzerik gabe, ezta *Cocooning* modernoena ere, sinbiosi, parranda eta erretiroen barren hurbilgaitzetara egindako migrazio masiboa, ez zen posible izango. Munduarekiko aldentzea gizarte polieskapista baten gutxieneko izendatzaile komuna da."

Hirugarren belarriaren edizio berri honek, gaur egun sakratuak bere burua aurkezteko dituen modu anitzak deskribatzeko saiakera egingo du: gauzetaz baliatzeko erabiltzen dituen modu berriak, eszenatokian agertzen duen biolentzia, erakusten dizkigun jantziak eta ahotsak, mundua ikaratzeari utzi ez dioten aurpegi anitzak.

Antolatzailea:
AUDIOLAB ELKARTEA
(www.audio-lab.org)

Zuzendaritza:
Oier Etxeberria
Xabier Erkizia

*O people that I know
It is enough for me to hear the noise of their footsteps
To be forever able to indicate the direction they have taken*

Guillaume Apollinaire "Cortège" 1920.

Esta nueva edición de *Hirugarren Belarria* tiene como tarea ampliar la percepción que a través del sonido, la escucha y la música podemos hacernos de ciertos dispositivos retóricos y dramáticos que conforman nuestro entorno social. Ya en la primera entrega del seminario, celebrada en septiembre de 2011, decíamos que por su propia irreductibilidad al discurso, el sonido (y por tanto la música) es un campo especialmente fértil para aquellas tentativas de exploración de lo sagrado. Esta condición de límite con el que una y otra vez nos encontramos al discurrir tanto sobre lo "sagrado" como sobre lo "sonoro", nos lleva en esta nueva edición a proponer a una serie de invitados a reflexionar sobre el significado de la noción de transgresión.

Para el Nietzsche de "El nacimiento de la Tragedia en el Espíritu de la Música", la música dionisiaca (algo así como la voluntad misma) surge de la ruptura y de la transgresión del *nomos* de la antigua Grecia. El éxtasis del sonido dionisiaco irrumpió en un mundo de apariencias e intensificó el cuerpo al grado máximo hasta hacerlo otro: "no el simbolismo de la boca, del rostro de la palabra sino el gesto pleno del baile, que mueve rítmicamente todos los miembros".

Precisamente en un texto de la antigua Grecia, Victor Shklovski encuentra la anécdota del príncipe que se deja arrastrar por la danza en la celebración de su boda: "... hasta el punto que se quitó la ropa y, desnudo, empezó a bailar sobre las manos. Enojado, el rey, padre de la novia, le gritó: «¡Príncipe, por tu danza has destruido tu matrimonio!». «Me da lo mismo», contestó el príncipe y siguió bailando sobre las manos."

Algunos de estos ejemplos de alteridad que el ritmo de la música y la danza son capaces de generar pueden ser enmarcados en ese espacio que el antropólogo Victor Turner describía como la fase preliminar de un rito de paso. Un lugar donde el agente es un ser inacabado. Alguien que "no es ni una cosa ni la otra", pero que puede ser simultáneamente y transitoriamente las dos condiciones en las que transita.

Un aforismo que dejó escrito Marcel Mauss nos lleva al ojo del huracán: «los

tabúes ha sido concebidos para ser violados» decía. George Bataille hizo suya la frase señalando repetidamente la relación entre lo sagrado y la transgresión.

Hoy en día, en el ocio programado, en la música y la danza de masas encontramos lo frenético, lo orgiástico, lo trágico. Así, en la oscuridad de cualquier discoteca podemos hallar una experiencia de lo trágico, quizás domesticada, como un frenesí en conserva, pero experiencia al fin y al cabo. La búsqueda de la alteridad, la huida del mundo, la huida de uno mismo siguen siendo las mismas. Todo el mundo quiere ser otro.

Por su parte, en un libro cuyo argumento son las relaciones entre pensamiento y juego, Javier Echeverría, después de señalar la estrecha relación de colaboración que se establece entre el Yo y Dios a la hora de someter al cuerpo a un orden establecido, dedica de manera sorprendente un capítulo al *riau-riau*. En este ejercicio ritual, batalla política y danza a su vez, Echeverría vislumbra una actividad posible liberada de cualquier finalidad, meta o consecución que no sea la de ganar espacio para la continuación del baile.

La fiesta es en efecto, de la misma manera que un intervalo musical, un estado de excepción temporal. Según Manuel Delgado, la fiesta de alguna manera no tiene duración. Pues supone una puesta en suspenso del mismo

devenir del que es la exaltación misma. Esta transgresión temporal (de la cual el carnaval sería el exponente más claro) tiene una función clave a la hora de ordenar la temporalidad propia de la sociedad en la que se inscribe.

En otro ámbito de cosas, cabe señalar que la modernidad, lejos de desencantar el mundo, habría sacralizado (con la transgresión como su punta de lanza) las más diversas formas de experimentar el mundo. Podríamos citar al respecto la observación de Michael Taussig acerca del desplazamiento que la modernidad ha hecho de lo religioso hacia el discurso de las drogas: "Las sociedades modernas y en especial los Estados Unidos, después de haber hecho las drogas ilegales y fijar sanciones extraordinarias para su uso y venta, ha logrado llevar a la lógica del tabú y la transgresión que subyace en lo sagrado a su perfección más terrible".

Así, la pretensión de la racionalidad moderna por abolir lo sagrado en realidad no ha sido sino un intento por abolir el conflicto que subyace en su lógica. Un intento por hacer de lo sagrado un espacio único, ubicuo, capaz de inmiscuirse hasta en las más recónditas esferas de la conducta humana.

En "El extrañamiento del mundo", Peter Sloterdijk apunta las relaciones entre lo sagrado y el uso de sustancias como huida ante la "exigencia excesiva de la existencia". Una huida en la que la escucha es tomada como una especie de modelo: "Desde que hay auriculares, el principio de desconexión del mundo progresa en el moderno consumo musical también a escala de los aparatos. A partir de todo esto, va siendo cada vez más próxima una evolución drogoteórica de todas las formas de ambientes más "sutiles" en la modernidad. Hoy, difícilmente podría darse un fenómeno de cultura contemporánea en donde no se manifestaran vestigios de técnicas cuasi musicales de distanciamiento del mundo. El más moderno *cocooning*, las emigraciones masivas de sujetos modernos al inaccesible interior de retiros, juergas y simbiosis, no sería posible sin la inmersión en el menú tonal de la instalación sonora. El distanciamiento del mundo es el mínimo común denominador de la sociedad poliescapista."

Esta nueva edición de *Hirugarren Belarria* trata de describir los modos en los que se nos presenta hoy en día lo sagrado con todas sus ambigüedades: los nuevos usos que hace de las cosas y la violencia con la que aparece en escena, los vestuarios y las voces con las que se presenta, las múltiples caras con las que no ha parado ni un instante de aterrar al mundo.

Organiza:
AUDIOLAB ELKARTEA
(www.audio-lab.org)

Dirección:
Oier Etxeberria
Xabier Erkizia



EGITARRAUA



HELBIDEAK

ARTELEKU

Kristobaldegi, 14, Loiola
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.arteleku.net

KAXILDA LIBURUDENDA

Arroka kalea, 6
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.kaxilda.net

GUARDETxea

Monte Urgull
Donostia - San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.guardetxeabandabat.org

SALA KUTXA ARRASATE

Calle Arrasate, 12
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)

Hirugarren Belarriak datorren hilabeteetan aurrera jarraituko du ekitaldi ezberdinekin, edizio hone-tako gaiak ikuspegi ezberdinetatik egituratu eta aztertuz. Hauen artean Diedrich Diederichsen-ek Arteleku hitzaldi eta tailerra emango du. Idazle eta kritikari alemaniarrek, XX. mendeko artea eta musikaren ikuspegi ezkutuak aurkeztuko dizkigu, psikodelia, ready-made-a, pop musika eta marxismoaren teoria ardatz hartuz. Beste aldetik soinuak irakurtzeko beharraz arituko zaigu Manu Agirre. Bere bizipen eta esperientzia pertsonaletik abiatuta, aktibista honek, ikusteko duen ezintasunak behartuta entzumenarekin duen harreman estuan oinarrituko du bere jarduna.

IRAILAREN 10A ASTELEHENA MEDIKU MUSIKARI

16:00 - 19:00: Pascal Battus: Soinuzko masaje sesioa (plaza mugatuak).
Erreserbak doan: info@arteleku.net

19:00: Hitzaldia:
José Ramón Mozota Ortiz: Belarri musikalaren eta zuzentzaileen artean

» Arteleku

IRAILAREN 11A ASTEARTEA TRADIZIOA, TRADUKZIOA, TRAIZIOA

19:00: Hitzaldia:
José Mari Esparza: Jota heretikoak

20:00: Hitzaldia:
José Luis Ortiz Nuevo: EGOERAK
Tirititran tran tran tran tran...
Transgresioak Flamenko erara

Ondotik: Janedan, solas eta entzuteko tarteak

» Kaxilda Liburudenda

IRAILAREN 12A ASTEAZKENA HIRIA ORROKA

19:00: Hitzaldia:
José Luis Espejo: Ziegak eta Transduktoreak

20:00: Hitzaldia:
Jaume Ayats: Taldearen errepresentazioa manifestazioen esloganetan eta kirol estadioetako kantuetan

» Arteleku

IRAILAREN 13A OSTEGUNA INOIZ IKUSTEKOAK

20:00: Soinuzko dokumentariaren entzunaldia:
Ni Nüzu (Myriam Ayçaguer, 2011)

» Guardetxea

IRAILAREN 14A OSTIRALA IRISTEN EZ DEN ISILTASUNA

20:00: Film proiektzioa (pre-estreno):
Oírse (David Arratibel, 2012)

» Sala Kutxa Arrasate

PROGRAMA



DIRECCIONES

ARTELEKU

Kristobaldegi, 14, Loiola
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.arteleku.net

LIBRERÍA KAXILDA

Calle Arroka, 6
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.kaxilda.net

GUARDETxea

Monte Urgull
Donostia - San Sebastián
(Gipuzkoa)
www.guardetxeabandabat.org

SALA KUTXA ARRASATE

Calle Arrasate, 12
Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)

Durante los próximos meses Hirugarren Belarria seguirá proponiendo nuevos eventos, profundizando en los temas propuestos en esta edición desde diversas perspectivas. Entre otros, Diedrich Diederichsen ofrecerá una conferencia y un taller en Arteleku. El escritor y crítico alemán, nos mostrará aspectos ocultos de la historia del arte y la música del siglo XX partiendo de la psicodelia, el ready-made, la música pop y las teorías marxistas. Por otro lado, Manu Agirre nos hablará de la importancia de leer los sonidos. A partir de sus vivencias y experiencias personales derivadas por su condición de invidente, este activista basará su intervención en la estrecha relación que establece con la escucha.

LUNES 10 DE SEPTIEMBRE MÉDICOS MÚSICOS

16:00 - 19:00: Pascal Battus: Sesión de masajes sonoros (plazas limitadas).
Reservas gratis: info@arteleku.net

19:00: Conferencia:
José Ramón Mozota Ortiz: Entre el oído musical y el oído rector

» Arteleku

MARTES 11 DE SEPTIEMBRE TRADICIÓN, TRADUCCIÓN, TRAICIÓN

19:00: Conferencia:
José Mari Esparza: Jotas heréticas

20:00: Conferencia:
José Luis Ortiz Nuevo: SITUACIONES
Tirititran tran tran tran tran...
Transgresiones a lo Flamenco

Después: Espacio para beber-comer, escuchar y charlar

» Librería Kaxilda

MIÉRCOLES 12 DE SEPTIEMBRE CIUDAD SINFÓNICA

19:00: Conferencia:
José Luis Espejo: Celdas y transductores

20:00: Conferencia:
Jaume Ayats: La representación del grupo en los eslógans de manifestación y los cantos en los estadios deportivos

» Arteleku

JUEVES 13 DE SEPTIEMBRE LO NUNCA VISTO

20:00: Audición de documental sonoro:
Ni Nüzu (Myriam Ayçaguer, 2011)

» Guardetxea

VIERNES 14 DE SEPTIEMBRE EL SILENCIO QUE NO LLEGA

20:00: Proyección de film (pre-estreno):
Oírse (David Arratibel, 2012)

» Sala Kutxa Arrasate

PASCAL BATTUS

http://soundmassage.free.fr/

Pascal Battus nerabezaroan hasi zen musika egiten rock gitarrajole gisara, gero perkusio ikasketak burutu eta azkenik musika esperimentalen eta inprobisazioaren munduan burubelarri sartzeko. Gaur egun hainbat soinu-zko aukera eta esperientzia lantzen ditu, berdin perkusio akustikoa nahiz anplifikatua erabiliz, gitarrak espazializatuz, azalera birakariak erabiliz edo bere kabuz sortutako musika tresna bereziak asmatuz. Europako, Ekialde Hurbileko, Japoniako edo Kanadako hainbat lekutan erakutsi izan du bere lana, besteak beste Thierry Madiot, Jean-Luc Guionnet, Thomas Lehn, Martin Tètreault edo Michel Doneda bezalako musikariekin, baita dantzariekin edo ikusizko artistekin elkarlanean ere. Bere hainbat egitasmoren artean aipagarriak dira Soinuzko Masajeak: Eguneroko objektuak erabiliz entzuleen beharrieta-tik oso hurbil sortzen diren intentsitate baxuko soinu akustikoekin egindako masaje sesioak.

HIRUGARREN BELARRIAren egitarauaren barnean Battusek Artelekura hurbildu eta hala nahi duten guztiei bakarkako masaje sesio bana eskainiko die (plaza mugatuak), doan.

JOSÉ RAMÓN MOZOTA

www.mozota.com

Belarri musikalaren eta zuzentzailaren artean

Sinopsia: Historian zehar, entzumena hainbat analisi zientifikoren objektu izan da, eta halaere ezer gutxi dakigu gure aditzeak martxan jartzen dituzten mekanismoei buruz. Mozota doktoreak, Otorrinolaringologiaren alorrean berrogei urteko jarduera profesionalak ematen duen esperientzian oinarrituta kontakizun

interesgarri bat proposatzen du. Bere teoriak, gure entzumen aparatuaren analisi fisiologikotik abiatuz, pertsona bakoitzaren testuinguruen baldintzetan oinarritzen dira, gure ahozko nahiz entzunezko komunikazioa hobe ulertzeko helburuarekin.

Biografia: Otorrinolaringologian espezialista. Valladolideko Medikuntza fakultatean irakasle, Valladolideko Unibertsitateko Medikuntza eta Kirurgia Doktore, baita North West London Universityko Otorrinolaringologia Doktore ere. Hainbat artikulu zientifiko argitaratu ditu eta bi liburu: “Chequeo a la dislexia” (Instituto de Ciencias de la Educación Universidad de Zaragoza, 1979) eta berriki “Reflejo Humano Otoneurofonatorio del Habla” (Palibrio, 2012). Gaur egun, jarduera profesionalaz gain, Nafarroako Otorrinolaringologia Elkartearen presidente lanak burutzen ditu.

JAUME AYATS

Taldearen errepresentazioa manifestazioen esloganetan eta kirol estadioetako kantuetan

Sinopsia: Manifestazioetako esloganek eta kirol-estadioetako kantuek, gutxietsitako eta baztertutako soinu-hitzezko espresio modura, musikari linguistika pragmatikoarekin oinarritzko irizpide batzuk ezartzeko ikerketa objektu bezala balio dute. Ariketa honek, ekintza kolektibo hauetako protagonistekin erlazionatu daiteken soinu modulazioaren elementuei arreta jarriz, orokorrean emaitza tautologikoak baino ez dituen “forma” musikalen analisi tradizionala gainditu nahi du.

Azken emaitza, esloganen eta kantuen bidezko soinuzko espresioaren modulazioak, manifestari edo jarraitzaileek beraien helburua, alegia taldearen errepresentazioa, burutzeko eman nahi duten talde-irudiarekin duen erlazio estua erakustea da.

Biografia: Bartzelonako Unibertsitate Auto-

nomoaren bidez Artearen historian (musikologiaren atalean) doktorea, Bartzelonako Unibertsitarean Filologia katalanuiarran lizentziatua, eta hiri bereko Udal Musika kontserbatorio nagusian bibolin irakaslea da. Orkestrako instrumentista modura lan egin zuen, Grup de Recerca Folklòrica d’Osona taldearekin ahozko musikari buruzko ikerketa lanak burutzen zituen bitartean. Beranduago Parisko École des Hautes Études en Sciences Sociales-en etnomusikologia ikasketak egin zituen eta Europako mundu urbanoko jendetzen soinuzko espresioari buruz osatu zuen bere tesi doktorala. Etnomusikologo gisara, Pumé de los Llanos Venezolanos talde etnikoari bnuruzko nazioarteko ikerketan parte hartu zuen. Frantzia, katalunia nahiz Espainiako etnomusikologiari buruzko hainbat aldizkaritan idatzi izan du, baita alor honetako zenbait liburutan ere, ko-egile modura. Escola Superior de Música de Catalunyayako Musikologia departamentuko zuzendari lanak bete ditu (2000-2005) eta 2005etik UABko etnomusikologia irakaslea da. Horrez gain nazioarteko hainbat ikerketa taldetan parte hartzen du eta musika tradizionalei buruzko dozenaka ikusentzunezko lan eta argitalpen zuzendu ditu. Berriki Kataluniako Herri Kulturaren sari nazionala jaso du.

JOSÉ MARI ESPARZA

www.txalaparta.com

Jota heretikoak

Sinopsia: Nafar kulturaren erakusle modura Jotak mundu ofizialaren tronuan ipini badira, bapatekotasunerako eta hausturarako gaitasun guztia ukatzearen eta adierazbide herrikoi hau politikoki zuzena izatera behartzearen kontura izan da. Eta ondorioz garapenerako edozein gaitasun ukatu zaio jotari, fosilen eskaparte batean bihurtzeraino. Jota abeslariak joteroa ordezkatu du, errepikapenak inprobisazioa, eztarriak irudimena. Aurkezpen honetan jota benetako herri espresio bezala ulertzeko adibideak erakutsiko dira. Gure herri eta gizartean gertatzen den guztiarekiko baliabide bizi, aske eta dinamikoa bezala.

Biografia: 1951ko azaroaren 23an Tafallan jaiotako idazle eta editore nafarra. Altaffaylla Kultur Taldearen eskutik Nafarroako gai historiko eta kostunbristen inguruan idatzitakoak argitaratzen hasi zen, esperientzia haren haritik, 1989an Txalaparta argitaletxearen zuzendaritza hartzeko. Hainbat artikulu, eskuorri eta liburu argitaratu ditu, horien artean, *Jotas heréticas de Navarra* (Tafalla, Altaffaylla, 1994) gutxi barru berriro editatuko den lan hau jotarekin mantentzen duen erlazio estuak bultzaturik idatzi zuen eta zenbait aspektutan -egilearen iritziz- hain manipulatua izan den kultur adierazpen herrikoi honen erakusle bikaina da.

JOSÉ LUIS ESPEJO

http://theratzingertimes.wordpress.com/

Ziegak eta transduktoreak

Sinopsia: Hitzaldi honek entzumen garaikidearen hainbat egitura politiko aztertuko ditu, entzuten duen gorputza eraiki eta mugatzen dutenak. Hortarako, hitzaldiak isiltasunaren historia labur bat marraztuko du, isiltasunak entzumena, gizakia eta bere jarduera kontrolatzeko dispositiboak sortzeko duen gaitasun sinbolikoa aztertuz. Ariketa honen helburu nagusia, zarataren eta isiltasunaren historia kulturala aztertzea da, gure entzumen espazioaren zenbait politika, entzumenaren arautze diziplinazko eta produktibistan oinarritzen direla erakusteko.

Biografia: Artearen Historian eta Ikusizko Kulturan burutu ditu ikasketak, eta gaur egun bere kabuz ikertzen ditu ikusentzunezko artea eta entzunezko kultura. Azken aldian, desiagarriak ez diren soinuen esanahiari eta historiari buruz ikertzen ari da, eta jakinmin honek aldiberean zarataren eta isiltasunaren konnotazio ekonomiko eta espiritualetara bideratu du bere ikerketa. Bere jarduera nagusiki sarean oinarritzen da: *The Ratzinger Times* blog pertsonalean. /mediateletipos))) kudeatzen duen lantaldeko ko-editore moduan eta Reina Sofia Museoaren RRS irratirako edukiak

editatu eta sortzen. Horrez gain, Oscar Martinekin elkarlanean, Soinu-Arteari eta Entzunezko kulturari eskainitako *Ursonate* Fanzinea argitaratzen du.

JOSÉ LUIS ORTIZ NUEVO

EGOERAK Tirititran tran tran tran tran... Transgresioak Flamenko erara

Sinopsia: Festaren berriak, goizeko bostetan edo seietan antolatzen diren kaosaren irudiak, gehiegikeri kosmikoen islak, ezohiko jokaera eta trebetasunak. Prozedurak. Haizeak gure oroitzapenetara ekarri ahala, gauaren magalean azaldutako aferak: pertsonak, gertakariak, koplak, ametsak, artea, jokua, itzalak eta argiak. Izakiek graziarekin min gutxiago pairatzen dutela jakina baita.

Biografia: José Luis Ortiz Nuevo. Kantatu, dantzatu edo musika jo ezik, denetik egin du alor honetan Archidonako (Malaga) hirurogeitakopiko urteko andaluziar honek: Ikuskizunak eta jaialdiak zuzendu, antzezlan komikoak burutu, irrati nahiz telebistako saioak egin, egunkarietan idatzi, hitzaldi eta jardunaldiak eman, eta hogei bat liburu argitaratu ditu. Hauetan azkenak, *Tremendo Asombro* izenekoak aurten ikusi du argia Habanako hemerrotekak arakatuz egindako ikerketa mamitsuaren ondorio gisara.

MYRIAM AIZAGER

artegia.blogspot.com

NI NÜZU

Iraupena : 46min
Egilea, soinu-hartzailea eta muntatzai-lea: Myriam Ayçaguer
Ekoizlea: ARTegia
Nahasketa: Audrey Ginestet

Euskal Herriko herri gehienetan, etxe

bakoitzak badu izen bat, betidanik berdina, etxeari eta etxekoei nortasuna ematen diena. *Ni nüzü* soinuzko dokumentalean, egilea Santagraziko etxalde batetara itzultzen da, bere amonaren etxera, segidarik gabe egon den baserri bat eta non laborantxako lanak geldituak diren iada. Bere mikrofonoekin eta familiaren laguntzarekin, etxe zaharrean eguneroko soinuak grabatzen ditu eta haur denborako soinuen berpizten entseatzen da.

Lan honek nahasten ditu soinu horiek eta ahots batzuk – amonarena, ondoko herrietako jakile batzuena – etxe izenei buruz mintzatzeko: zoin da herrietan izen horietaz eginik den erabilera, zoin den bere ustez izen horien esanahia...

Ni nüzü osoa xiberutarrez grabatua izan da; gaztelanierazko azpituluak dituen bertsioan aurkeztuko da.

DAVID ARRATIBEL

www.oirsedocumental.com

OÍRSE

Iraupena : 55 min
Zuzendaria: David Arratibel
Ekoizlea: FILMOTIVE
Errealizazioa: Zazpi terdi

Egun hartan, soinu fantasma bat hasi zen soinua egiten neure buruan: soilik nik entzuten nituen ziztu eta txitxarrak, edo beharbada beste norbaitek ere entzungo zituen. Pertsona gehienek bezala, isiltasunari ihes egin nion, nere barrenak ez entzutearren. Isiltasuna, soilik hasiera bait da.

Film honetan David Arratibelek akufenoekin edo tinnitusarekin bizitzeak esan nahi duena erakusten digu. Akufenoa inongo kanpoko jatorririk ez duten arren belarrietan entzuten diren soinuek eta kolpeek sortutako fenomeno pertzeptiboa da.

Pelikula honek proposatzen duen bilaketak ez du ikuslea sentsibilizatzea, edo arazo honi azalpen zientifikoa bilatzea helburu, beharbada erantzun bakarra ez duten galderak egitea baizik.

PASCAL BATTUS

http://soundmassage.free.fr/

Pascal Battus comenzó haciendo música en la adolescencia como guitarrista de rock, para luego estudiar percusión y finalmente centrarse en las músicas experimentales y en la improvisación. En la actualidad presenta un amplio rango de posibilidades y experiencias sonoras, utilizando percusión acústica y amplificada, espacialización de guitarras, superficies rotatorias y otros instrumentos diseñados por él. Ha mostrado su trabajo en muchos lugares de Europa, Oriente Medio, Japón, Canada junto a músicos como Thierry Madiot, Jean-Luc Guionnet, Thomas Lehn, Martin Têtreault, Michel Doneda... así como acompañando a bailarines o artistas visuales. Entre sus diversos proyectos destacan los Masajes Sonoros: sesiones de masaje generados mediante sonidos acústicos de baja intensidad y objetos domésticos que se reproducen muy cerca de los oídos de los oyentes.

Dentro del programa de HIRUGARREN BELARRIA, Battus ofrecerá una sesión individual de masajes gratuita a todas las personas que así lo deseen y se acerquen a Arteleku (plazas limitadas).

JOSÉ RAMÓN MOZOTA

www.mozota.com

Entre el oído musical y el oído rector

Sinopsis: Durante el transcurso de la historia, el sentido del oído ha sido objeto de infinidad de análisis científicos, y aún así, hoy es el día en el que apenas sabemos nada sobre los mecanismos que activan nuestra escucha. El Dr. Mozota, basándose en una experiencia de más de cuarenta años de ejercicio profesional en el ámbito de la Otorrinolaringología, traza una interesante trayectoria

que partiendo del análisis fisiológico del aparato auditivo se centra en las condiciones contextuales de cada individuo para comprender mejor nuestra comunicación oral y aural.

Biografía: Especialista en Otorrinolaringología. Profesor de la Facultad de Medicina de Valladolid, Doctor en Medicina y Cirugía por la Universidad de Valladolid y Doctor en Otorrinolaringología por la North West London University. Ha publicado varios artículos científicos y dos libros, “Chequeo a la dislexia” (Instituto de Ciencias de la Educación Universidad de Zaragoza, 1979) y más recientemente “Reflejo Humano Otoneurofonatorio del Habla” (Palibrio, 2012). Actualmente además de ejercer profesionalmente, es Presidente de la Sociedad Navarra de Otorrinolaringología.

JAUME AYATS

La representación del grupo en los eslógans de manifestación y los cantos en los estadios deportivos

Sinopsis: Los eslógans de manifestación y los cantos en los estadios deportivos, una expresión verbal-sonora marginal y poco valorada, sirve como «objeto» de estudio para aplicar a la música algunos de los criterios básicos de la lingüística pragmática. La operación consiste en superar los tradicionales análisis de la «forma» musical de resultado fundamentalmente tautológico a partir de la observación de elementos de la modulación sonora que pueden relacionarse con los protagonistas del acto colectivo. El resultado pretende mostrar cómo la modulación de la expresión sonora de los eslógans y los cantos está completamente vinculada a la imagen de grupo que los manifestantes o los hinchas pretenden ofrecer para alcanzar con éxito su objetivo: la re-presentación del grupo.

Biografía: Doctor en Historia del Arte (especialidad de musicología) por la Universitat Autònoma de Barcelona, licenciado en

Filología Catalana por la Universitat de Barcelona, y profesor de violín por el Conservatori Superior Municipal de Música de Barcelona. Trabajó como instrumentista de orquesta al mismo tiempo que desarrollaba investigaciones sobre la música oral con el Grup de Recerca Folklòrica d’Osona. Más tarde realizó estudios de etnomusicología en la École des Hautes Études en Sciences Sociales de París. Elaboró su tesis doctoral sobre la expresión sonora de las multitudes en el mundo urbano europeo. Participó en un proyecto de investigación sobre el grupo étnico Pumé de los Llanos Venezolanos en calidad de especialista en etnomusicología. Tiene publicados diversos artículos sobre etnomusicología en revistas francesas, catalanas y españolas, y es coautor de diversos libros sobre la materia. Ha sido jefe del departamento de Musicología en la Escola Superior de Música de Catalunya (2000-2005) y desde 2005 es profesor de etnomusicología en la Universidad Autónoma de Barcelona. Además participa en diversos proyectos internacionales de investigación y ha dirigido docenas de publicaciones audiovisuales sobre músicas tradicionales. Recientemente ha sido galardonado con el premio Nacional de cultura popular de Catalunya.

JOSÉ MARI ESPARZA

www.txalaparta.com

Jotas heréticas

Sinopsis: La entronización oficial de la Jota como primer exponente cultural de Navarra ha sido a costa de constreñir la jota popular a lo políticamente correcto, negándole toda espontaneidad y capacidad de subversión. Y por ende, toda capacidad de desarrollo, hasta convertirlo en un escaparate de fósiles. El cantador de jotas ha suplantado al jotero; la repetición a la improvisación; la garganta a la imaginación. En esta presentación se mostrarán ejemplos en los que la jota se entiende como auténtica expresión popular, vehículo vivo, libre y dinámico de lo que acontece en la sociedad y en nuestros pueblos.

Biografía: Divulgador y editor navarro nacido en Tafalla en 1951. Comenzó a editar con Altaffaylla Kultur Taldea sobre temas históricos y costumbristas de Navarra, una experiencia que le lleva en 1989 a asumir la dirección de la editorial Txalaparta. Ha escrito numerosos artículos, folletos y una docena de libros. Entre estos, *Jotas heréticas de Navarra* de próxima reedición, obra surgida de su relación familiar con la jota, de sus paseos por la historia local y de su estrecha relación con la Navarra alegre y heterodoxa. A juicio del autor, supone un buen muestrario de las posibilidades que tuvo esta expresión popular antes de que fuera castrada por el navarrismo oficial.

JOSÉ LUIS ESPEJO

http://theratzingertimes.wordpress.com/

Celdas y transductores

Sinopsis: La intervención trata de analizar algunas estructuras políticas de la escucha contemporánea que delimitan y contruyen un cuerpo oyente. Para ello se relata brevemente una historia del silencio como forma simbólica capaz de producir dispositivos de control del oído, de la persona y de su hacer. El objetivo es desentramar la historia cultural del ruido y el silencio para así poder demostrar como algunas políticas de nuestro espacio aural se basan en regulaciones disciplinarias y productivistas del oído.

Biografía: Ha realizado estudios en Historia del Arte y Cultura Visual y actualmente se dedica a investigar de manera independiente sobre arte audiovisual y cultura aural. Recientemente se ha interesado por la historia y los significados de los sonidos no deseados, llevándole esto a las connotaciones económicas y espirituales del ruido y el silencio. Desarrolla su actividad especialmente en web, desde su blog personal *The Ratzinger Times*, como co-editor en el amplio grupo que gestiona ./mediateletipos))) y colaborando en la edición y creación de contenidos de RRS Radio de Museo Reina Sofía. Además co-edita junto con

Oscar Martín *Ursonate* Fanzine, una publicación sobre Arte sonoro y Culturas Aurales.

JOSÉ LUIS ORTIZ NUEVO

SITUACIONES Tirititrán tran tran tran... Transgresiones a lo Flamenco

Sinopsis: Noticias de la fiesta, imágenes del caos ordenándose a las cinco o las seis de la madrugada, reflejos de exageraciones cósmicas, conductas hábitos y habilidades fuera de lo común. Procedimientos. Asuntos descubiertos en los costados de la noche según los trae el viento de la memoria: personas, hechos, coplas, sueños, miserias, arte, juego, sombras y luminarias, pues ya es sabido que con gracia menos daño sufren las criaturas.

Biografía: José Luis Ortiz Nuevo. Menos cantar, tocar o bailar; de todo ha hecho este sesentón andaluz de Archidona (Málaga) en el género: dirigir espectáculos y festivales, actuar de cómico, hacer programas de radio y televisión y escribir en periódicos, dictar conferencias y seminarios, y otrosí publicar una veintena de libros, el último nacido hogaño tras una provechosa investigación de varios en las hemerotecas de La Habana y que se titula *Tremendo Asombro*.

MYRIAM AIZAGER

artegia.blogspot.com

NI NÜZU

Duración: 46min
Dirección, grabación y montaje: Myriam Ayçaguer
Productora: ARTegia
Mezclas: Audrey Ginestet

En la mayoría de pueblos de Euskal Herria, las casas tienen un nombre,

que perdura inalterable en el tiempo y que define la identidad tanto de la casa como de la gente que las familias que la habitan. En el documental sonoro «*Ni nüzü*», la directora regresa a una finca de Santa Grazi: la casa de su abuela, una finca que se ha quedado sin vida y donde hace tiempo que cesó la actividad agrícola. Con sus micrófonos, y con la ayuda de su familia, graba los sonidos de lo cotidiano en la vieja casa y intenta hacer revivir los sonidos de antes, los sonidos de su infancia.

El montaje mezcla esos sonidos con voces –la de la abuela y la de algunos testigos de los pueblos vecinos– para hablarnos sobre los nombres de las casas, el uso que se hace de esos nombres en los pueblos, de la significación que pueden tener...

Ni nüzü es enteramente en dialecto bearnés; y en esta ocasión se presenta una versión subtitulada en castellano.

DAVID ARRATIBEL


www.oirsedocumental.com

OÍRSE

Duración: 55 min
Dirección: David Arratibel
Productora: FILMOTIVE
Realización: Zazpi terdi

“Aquel día un sonido fantasma empezó a sonar en mi cabeza: un pitido y unas cigarras que sólo yo escuchaba, o quizá alguien más lo hiciera. Como la mayoría de las personas, huía del silencio para no escuchar el interior. Porque el silencio es sólo el principio.”

En este film David Arratibel nos muestra lo que significa convivir con los acúfenos o tinnitus, un fenómeno perceptivo que consiste en notar golpes o sonidos en el oído que no proceden de ninguna fuente externa. En su búsqueda, la película no pretende sensibilizar al espectador ni buscar explicación científica a este problema, sino plantear diversas preguntas que quizás no tengan una misma respuesta.



audio-lab.org

eremuak

arteleku | 

BANDA
BAT

KAXILDA